

# Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Proposamen horiek euskaltegiaren blogean aurkituko dituzu, B.2 mailako ikastorduen atalean. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela zure euskara plazara ateratzea!

## JALGI HADI PLAZARA!

### Zeure ingurua aprobetxatuta:

- ✓ Baliteke zure familia edo zu zeu herri txiki batekoak izatea. Zein da herria? Nolakoa da? Zerk egiten du berezi? Konta iezaiezu ikaskideei nolakoa den, eta erakutsi argazki batzuk.

### Internet eta hedabideak aprobetxatuta:

- ✓ ETBn arrakasta handia duen saioa da *Herri txiki, infernu handi*. Arabako herri askotan egon dira: Zuia, Legutio, Agurain, Asparrena, Oion, Zigoitia, Aiara, Kanpezu... Sar zaitetz [www.eitb.eus](http://www.eitb.eus) atariko **nahiera** aukeran, eta ikus ezazu horietako bat. Zer iruditu zaizu? Kontatu saioaren nondik norakoak eta zure iritzia ikaskide bati.
- ✓ [Esteka honetan](#) klik eginez gero, Gasteizi buruzko saioa ikusteko aukera izango duzu. Jende ezagunak parte hartu zuen saio horretan. Baietz norbait ezagutu! Ikus ezazu saioa, eta labur iezaiezu ikaskide bati bertan ikusitakoa.
- ✓ Euskal herrian baserriek izan duten paperari buruzko [dokumentala](#) duzu hemen, **Herriaren bihotza** izenekoa. Gaia interesgarria iruditzen bazaizu, ikus ezazu, eta konta itzazu gelan bertatik jasotako daturik esanguratsuenak.
- ✓ **Ur Handitan** saioko [atal honetan](#), Arabako herri bateko biztanleak, Urizaharrakoak hain zuzen ere, ageri dira herrietako despopulazioaren inguruan hitz egiten. Aste honetan idatzi beharreko artikulurako ideia eta argudioak biltzeko aproposa izan daiteke. Ikus ezazu, ea zenbat ideia jasotzen duzun bertatik.
- ✓ **Faktoria** saioko grabazio honetan, herrian eta hirian bizitzearen alde on eta txarrez hitz egingo digute. Ez da oso luzea, 15 minutu inguru irauten du. [Entzun ezazu](#), eta, ideiak interesgarriak iruditzen bazaizkizu, erabil itzazu aste honetako artikulua idazteko.
- ✓ [Moraza, biziberritzen ari den herritxoa](#). Hiri handian bizitzeak abantaila handiak dituen arren, batzuek nahiago izaten dute herri txiki bateko bakeaz eta abantailez gozatu. Garai batean ia hutsik zegoen herria zen Moraza eta gaur egun web-orri bat duen Trebiñoko herri bakarretakoa izatera pasatu da, bizilagunen ekimenari esker. Horren eragile garrantzitsuena Nerea Alzaga dugu. Hark kontatuko digu nolako herria den Moraza eta nolatan iritsi zen ia desagertuta zegoen herrixka honetara.
- ✓ Aspaldian sentitzen zuten "hutsune" bat bete nahian, Arabako hainbat herri txikiren arteko [asanblada bat](#) sortu dute bertako hainbat gaztek: **Herri Txikiak Bat**. Jaso egitasmoari buruzko [informazioa](#). Zer irizten diozu egitasmoari? Pentsatu zein den zure iritzia eta komenta ezazu ikaskideekin.
- ✓ Eginkizunean, **sarrerak idazteko teknika batzuk** ikusiko ditugu. Ikasi ondoren, bila itzazu euskal hedabideetako artikuluetan teknika horiekin idatzitako sarrerak. Aurkitutakoan, partekatu ikaskideekin egindako lana. Hona hemen euskal hedabide batzuk: [Berria](#), [Argia](#), [Gaztezulo](#), [Zientzia.eus](#), [Alea](#)...